

# EUSKADIKO ALBISTEAK

99 zk. - 2007



Lehendakariak Herritarren Parte-hartze Programa aurkeztu zion euskal gizarteari, Jaurlaritzak abiaraziriko programa.

## AURKIBIDEA

### ▼ HOGETA HAMAR EGUN EUSKADIN

Industria sailburuak bi fabrika inauguratu ditu Mexikon.

Hitza gizarteari eman behar zaiola azpimarratu du Ibarretzek.

2. orrialdea

### ▼ EZAGUTU EUSKADI

Matxitxakoko batailan erakutsitako adorea aintzatespena.

Euskadiko basoen osasun ona.

3. orrialdea

### ▼ KONTUAN HARTZEKOAK

Araba, Kretazeorako atea.

Bernardo Atxaga, Euskaltzaindiko kide.

AEBetako Euskadiren ordezkariak badu jada arduraduna.

4. orrialdea

## Ekimen horren lehen fasearen balantzea aurkeztu zuen lehendakariak

# Columbiako Unibertsitateak egingo du Herritarren Parte-hartze Planaren ondorioen txostena

New Yorkeko Columbiako Unibertsitateak egingo du Eusko Jaurlaritzak abiaraziriko Bakea Eraikitzeo Herritarren Parte-hartzerako Ekimenaren ondorioen txostena; berriki aurkeztu dio Juan Jose Ibarretxe lehendakariak ekimen horren lehen balantzea gizarteari. Txosten hori egindakoan, Eusko Legebiltzarrari helaraziko dio Ibarretzek, hartu beharreko ekimenak zehazte aldera.

Bertaturiko jende ugariaren aurrean —bertan ziren, besteak beste euskal erakundeetako arduradunak eta gizarte-esparru guztietako ordezkariak—, lehendakariak banan-banan xehatu zituen ekimen global horretan bilduriko proiektuak. Hiru ildotan biltzen dira horiek guztiak: banakako parte-hartzea, konpondu.net web-orriaren bidez; uda-

len parte-hartzea, elkarriketako udalfoeren bidez; eta egun badauden gizarte-sareen bidezko parte-hartzea.

### Atxikitako 70 udalerrri eta milioi bat sarrera web-orrian

Horrela, Ibarretzek iragarri duenez, Eusko Jaurlaritzak "bakea nola lortu" eta "gizartearen normalizaziorantz nola aurrera egin" gaiei buruz herritarrek eginiko ekarpenak biltzeko helburuarekin garaturiko konpondu.net web-orriak milioi batetik gora sarrera izan ditu joan den urtarilean abiarazi zenetik.

Web-orri horren bidez, 17.600 lagunek informazioa jasotzea eskatu dute, 3.323k aktualitateko gaiei buruzko gal-desortari erantzun diote eta herritarren 337 mezu igorri zaizkie alderdi politi-

koei. Proposamen horiek, mundu osoan ekimen aitzindaria izan den ekimenaren fruitu, alderdi politikoei eta euskal erakundeei helaraziko zaizkie ondoren.

Jardun-esparruen arteko bigarrenari dagokionez, hots, Udaletako Elkarrizketa Foroak, 70 udalerrri atxiki dira jada ekimenera, eta horietatik 17 arabarrak dira, 18 gipuzkoarrak, 33 bizkaitarrak eta 2 nafarrak.

Herritarrek parte hartzeko duten hirugarren ildoak egun badauden gizarte-sareen bidez garatzen da —hala nola mugimendu zibikoak eta erakunde bakezaleak, erakunde sindikalak eta enpresarialak eta unibertsitatea—, eta esparru horietako bakoitzean normalizazio-prozesuari buruzko iritziak biltzea eta elkarriketa ere ahalbidetuko ditu. ►

1. orrialdetik dator

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ere laguntza ematen dio ekimen horri, eztabaida-foroak abiarazita.

Herritarren Parte-hartze Ekimena abiarazi zenetik, hots, urte-hasieratik (ikus Euskadiko Albisteak bulletina, 97. zenbakia), Ibarretxe lehendakariak parte hartzeko gizarte-sare sendoa sortzeko premia errepikatatu du, "amildegira erortzea eta indarkeriako eta estortsio-iraganera itzul-

teza eragotziko duena", huts egindako aurreko bake-saioetan gertatu zen bezala, hala nola Aljerren eta Lizarran.

### Diasporaren ahotsa

Bere txandan, prozesu horretan euskal diasporak duen garrantzia ere aipatu zuen; mundu osoko 6 milioi euskaldunek osatzen dutela esan zuen, eta eztabaidako foro presentzialak zein foro birtualak abiaraziko dira haientzat.

Hain zuzen ere, bi gazte argentinarrak aurkeztu zituzten Euskadiko mugetatik kanpo jada egindako lehen eztabaida-foroetako ondorioak: María Belén Girasolek eta Alberto Ignacio Philip-ek egin zuten aurkezpena, eta ekimenak ozeanoaren beste aldean izandako harre- ra ona azpimarratu zuten.

Zehazki, aurreikusia dago Argentinan eztabaidako 100 foro baino gehiago sortzea, eta horietatik 20 eraturta daude jada, "oso emaitza positiboarekin", ordezkari

argentinarraren hitzetan, haren ustez "aurrekarien ar-bera orain arte ez baita inoiz atzerriko biztanleria horrela kontsultatu izan antzeko prozesu batean parte hartzeko".

Lehen hogeita foro presentzial- ez gaitz gain, lehenengo foro birtuala ere martxan jarri da Internet bidez, eta zazpi lagunek parte hartu dute bertan (argentinarrak, venezuelarrak eta Euskadiko moderatzaile bat). Esperientzia pilotuaren emaitzaren arabera, foroaren kopurua gehitu ahalko da euskarri horrekin.



## Euskadiko Industria sailburuak bi fabrika inauguratu ditu Mexikon

Eusko Jaurlaritzaren ordezkari- tza batek, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburu Ana Agirre buru zuela, Mexikoko bidaia egin du berriki, ekonomiaren arloko arduradunekin harremanak izateko eta herrialde hartan finkaturiko zenbait euskal enpresa bisitatzeko. Zehazki, Queretaroko eskualdean Kaiku esne- industriak muntatu duen instalazio berria inauguratu zuen Ana Agirrek; jogurt funtzionalak eta haurrei zuzen-

durikoak ekoiztuko dituzte instalazioan. Euskal industriak Ameriketara muntatzen duen hirugarren instalazioa da Queretarokoa (beste biak Txilen eta Argentinan daude).

Horretaz gain, Euskadiko sailburuak Fagor etxearen fabrika bat inauguratu zuen San Luis de Potosín (argazkiaren ue- na), hotel-kate handien hozketaren giltzak eskuan instalazio-lanetan eta elikaduraren eta ikuzketaren sektoreetako hornikuntza- lanetan arituko dena, kasu horretan.

Bere mintzaldian, Ana Agirrek adierazi zuen euskal enpresa-kultura honako honetan datzala: finkatzen den ingurunean integratzen dela, "hemen geratzeko gatoz, ez baliabideak ustiatzeko", esan zuenez.

Mexiko funtsezko merkatua da Euskadirentzat, zortzigarren tokian baitago euskal esportazioen destino-herrialdeen zerrendan eta hamaseigarrenean, aldiz, hornitzaile atzeritarren zerrendan. Horretaz gain, euskal enpresek presentzia handia dute herrialde horretan: 48 merkataritza- ezarpen eta 32 produkzio- instalazio, zehatz esanda.

## Inputatu gisa epailearen aurrean egin duen bigarren deklarazioan

## Hitza gizarteari eman behar zaiola azpimarratu du Ibarretxek

Juan José Ibarretxe lehendakaria bigarren aldiz bertaratu zen Bilboko epaitegietara inputatu gisa deklaratzeko desobediencia- delitu batengatik, Batasunarekin bildu izanagatik bere kasuaren instrukzioa egiten ari den epaile-aren aurrean.

Ermuko Foroak jarritako kereila zabaldu izanaren ondorioz agertu zen oraingoan Ibarretxe, Foroak zabaldu egin baitzuen bere kereila lehendakaria ezker abertzaleko buruekin bilera bat ez ezik hainbat bilera izan zitue- la jakin zuenean.

Oraingoan ere bere kabineteko kide guztien laguntza izan zuen lehendakaria, baita bere babesa eta elkartasuna adierazi nahi izan zion jendetza handiaren laguntza ere.

Deklarazioa egin ondoren, euskal gizartearekin hartu zuen konpromisoa gogorarazi zuen, hots, bakea lortzeko alderdi guztiekin hitz egitea, eta berriz errepikatu zuen lehendakari den bitartean bere hitza betetzen jarraitu duela, "euskaldunok hitzaren balioa dugulako, beste edozeren gainetik", azpimarratu zuenez.



## Adorearen aintzatespena

Matxitxakoko Batailaren 70 urte betetzen diren honetan, Juan José Ibarretxe lehendakariak eta haren gobernuko sailburuek omenaldia egin nahi izan zieten Euzkadiko Gudontzidiaren, itsas armadaren, lau boutako kideei, "Canarias" gurutze-ontzi frankistaren aurkako borroka desorekatua egin zutenei, hain zuzen ere. Itsas bataila gertatu zen leku berean, Ibarretxek lore-koroa bota zuen (argazkiak biltzen duen unea), itsas gizon haiek erakutsitako ausardia aintzat hartuz, "totalitarismoaren mehatxuaren aurrean altxa egin baitziren Euskadiren askatasuna defendatzeko, Errepublikarekin bat eginez, eta gai izan zirelako, zeuzkaten bitartekoak urriak izanik ere, funtsezko laguntza emateko euskal kostaren hornidura-, eskolta, ebakuazio- eta defentsa-lanetan". Bizirik dirauten zenbait lagun eta haien senideak ere izan ziren omenaldian, eta erakutsiriko "eskuzabaltasuna" eskertu zien lehendakariak, "bizikidetzaren eta adiskidetzaren bidea aurkitzen jakin dutelako".

## Euskadiko baso-azalera gora egin du eta 227 milioi zuhaitzetara iritsi da

Euskadiren zuhaitz-azalera nabarmen gehitu da azken bederatzi urteotan. Hori adierazten du, behintzat, Eusko Jaurlaritzak landuriko azken Baso Inbentarioak, berriki ezagutarazirikoak. Zehazki esanda, zuhaitzez hornituriko baso-azalera 7.000 hektareatan hazi da, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen erdia baino gehiago (% 55) hartzen du jada. Horretaz gain, euskal baso eta mendien osasun onaren adierazgarri da azterlana, guztira 227 milioi zuhaitz edo oin handi (7,5 zentimetrotik gorako diametroa eta 1,30 metroko altuera), biltzen baitituzte, 1996an baino 45 milioi gehiago.

Lurraldeen arabera, Arabak du baso

naturalaren ehunekorik handiena; Bizkaiak isurialderik produktiboena eta Gipuzkoak du orekarik handiena baso naturalen eta landaturiko sailen artean.

Balio ekonomikoari dagokionez, 12.000 milioi eurotan aurreikusten da Euskadiko baso-azalaren balioa; balio horren % 65 produkzio-adierazleei dagokie —hala nola zura, ehiza, larreak, eta abar—, % 7 jolas-eta paisaia-alderdiei eta gainerako % 28a beste hainbat faktoreri, hala nola ingurumen-faktoreari. Hain zuzen ere, basomasak ingurumenean eragiten dituen onuren erakusgarri da zuhaitzez hornituriko hektarea bakoitzak Euskadin urtean karbono-tona bat neutralizatzen duela.

## Euskadi, Katalunia eta Galizia batu egin dira beren hizkuntzak bultzatzeko

Euskadik, Kataluniak eta Galiziak hizkuntza-politikari buruzko lehen lankidetzahitzarmena sinatu dute; hizkuntzen arteko gizarte-parekatzea lortzea du helburu, eta euskarak, katalanak eta galegoak gaztelaniarekiko duten aldea gainditzea.

Hitzarmen horren bidez, hiru autonomia-erkidego horietako gobernuak Estatuaren izaera eleanitza bere gain hartzea eskatzen diote gobernu zentralari, eta hizkuntza horiek erabil ditzala erakunde eta enpresa publikoetan.

Lehen aldiz sinatu dute horrelako akordio bat (hiru urteko iraunaldia izango du) hiru gobernu autonomoek, eta "gertaera historiko" bihurtzen du horrek, hitzarmenaren bultzatzaileen ustetan.



### Aitor Sotes, Euskadiren ordezkari Estatu Batuetan

Estatu Batuetako Euskadiren ordezkari-  
ritza abiaraztea onartu zenetik aste  
gutxi batzuk igaro diren honetan (ikus  
Euskadiko Albisteak buletinaren 98.  
zenbakia), Eusko Jaurlaritzak izendatu  
du jada nork zuzenduko duen ordezkari-  
ritza berria, egoitza New Yorken izan-  
go duena. Aitor Sotes dugu, 33 urteko

donostiarra, Ekonomia eta Enpresa  
Zientzietan lizentziaduna, eta datozen  
urteetan bertan lan egingo duen  
herrialdea ondo ezagutzen duena,  
berriki arte Jaurlaritzaren mendeko  
SPRI Industriaren Sustapen eta  
Eraldaketakarako Baltzuak Chigacon  
duen bulegoa zuzendu baitu 2001az  
geroztik.

Aurrerantzean egiteko duen lanarekin  
jabetuta, hots, "euskal kultura eta  
ekonomia Estatu Batuetan sustatu eta  
zabaltzea", Sotesek "zoriontsu" dagoela  
dio, bere karrera profesionalean erronka  
berri bati ekiteko aukera izango baitu.

### Araba, Kretazeorako atea

Mundu osoan erreferentzia bihurtu da  
Araba Behe Kretazeoaren azterketari  
dagokionez, Burandon Gatzagako  
anbar-hobian egindako aurkikuntza  
berriei esker.

Duela urte batzuk mundu osoan egin  
zen ezaguna Araba palentologoen arte-  
an Urizaharreko anbar-aurkikuntzak  
tarteko, eta orain, aldiz, indusketa  
berrietan izandako aurkikuntzek leku

ezin hobean jartzen dute lurraldea  
etapa hori aztertzeke, hots 146-99  
milioi urteko aldia. Zehatzago esanda,  
Burandon Gatzagan duela 120 milioi  
urteko altxorak biltzen dituzten anbar-  
laginak aurkitu dira, hala nola oso  
ondo gordetako landare-hondarrak eta  
intsektu fosilizatu berriak, jakintzaren  
bidean argia dakartenak eta zientzialari-  
rei ate bat zabaltzen dietenak; adituak  
oraindik ez dira horren guztiaren  
inguruko ondorioak imajinatzeke gai,  
aurkiturikoaren potentziala zenbaterai-  
nokoa den kontuan izanda.

## Laburrak



inguru eraiki zituzten XVI. mendean, eta mende hori hartzen da horrelako erai-  
kinen urrezko garaitzat, hain zuzen ere.

**Giza Eskubideen aldeko eskultura Kolonbian.** Xabier Santxotena  
nafar eskultorea da Gernika parkea menderatuko duen eskulturaren egilea;  
Bogotako Euskal Etxearen aurrean dago parkea, eta giza eskubide unibertsalen  
oroigarri da eskultura. Jesus Galindezi eskainiriko monumentua da obra (elkar-  
turiko bi beso, zerurantz eta justizia eske); orain dela 50 urte desagertu zen  
Galindez, beste hainbat euskaldun bezala. Bogotako Euskal Etxeak dohaintzan  
eman du obra, eta irailean inauguratzea dago aurreikusia, Eusko-kolonbiar  
Astearekin aldi berean.

### Atxaga eta antzarak

Haur zela Asteasuko zerua zehar-  
katzen ikusi zuen antzara saldo bat  
baliatu zuen Bernardo Atxaga  
idazleak Euskaltzaindian sartzeko  
egindako hitzaldia josteko. Eus-  
kaltzaindiko kide oso aukeratu  
zuten iaz Atxaga, Juan Mari  
Lekuonaren ordezkari.

"Antzarak, zenbakiak eta letrak"  
izenburupean, nazioartean proiektio  
handiena duen euskal idazleak  
hitzaldia josi zuen, literaturari,  
idazketari eta euskarari buruzko  
gogoeta uztartuz, Asteasun egini-  
ko ekitaldian, 1951n jaio zen  
Gipuzkoako herrian, hain zuzen  
ere.

Horrela, senide zuzenekoak  
eta auzokoak alboan zituela,  
Euskaltzaindiko kide oso berriak  
hizkuntzaren erabilera defendatu  
zuen ideologia politikoaren aurre-  
an, hori baita hizkuntza bati egiaz-  
ko balioa eman eta hizkuntza bera  
eusten duen elementua, eta puris-  
tek eragiten duten kalteaz oharta-  
razi zuen. "Aurrera ateratzeko,  
hizkuntzaren erabilera balio positi-  
boekin lotu behar da, hala nola  
demokraziarekin eta tolerantziare-  
kin, eta, beste edozeren gainetik,  
erabili, eta erabileraren bidez,  
bizitza eman", adierazi zuen.

#### Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakari-  
tzaren Komunikazio- eta Idazkaritza Nagusia.  
Tel. (34) 945 017 972 - Fax (34) 945 017 832  
Navarra, 2. 01007 Vitoria-Gasteiz  
<http://www.euskadi.net>  
Eusko Jaurlaritzaren Inprimategi- Erreprografia Zerbitzua  
LG VI-276/99